

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALA

Peñacerrada-Urizaharreko Udalak hornitutako gizarte zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskala behin betiko onartzea

Udalbatzak, 2025eko uztailaren 29ko bilkuran, Peñacerrada-Urizaharreko Udalak hornitutako gizarte zerbitzuen prezio publikoak arautzen dituen ordenantza fiskalari hasierako onarpena ematea erabaki zuen. Bestalde, 2025eko azaroaren 11ko osoko bilkuran, erabaki zuen behin betiko onestea udal gimnasio zerbitzua emateagatik prezio publikoak arautzen dituen zerga ordenantza, behin 2025eko irailaren 22an egindako erreklamazioa ebatzita.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 70.2 artikuluan eta 1/2021 Araugin-tzako Foru Dekretua, irailaren 29koa, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren Testu Bate-ginaren 19 artikuluan aurreikusitakoa betez, osorik argitaratzen da arau berriaren testua, eta argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, 2 hilabeteko epean, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita, Adminis-trazioarekiko Auzien Jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, egoki iritzitako beste edozein errekurtsio aurkez dezake.

ORDENANTZA FISKALA, PEÑACERRADA-URIZAHARREKO UDALAK HORNITUTAKO GIZARTE ZERBITZUEN PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUENA

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazio-eremua

Ordenantza fiskal hau udalak ematen dituen eta kudeaketa zuzeneko erregimenean, beste erakunde publiko batzuekin hitzarmen erregimenean edo erakunde pribatuekin itun, hitzarmen edo kontratu erregimenean ematen diren honako zerbitzu hauei aplikatuko zaie:

- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.
- Etxebizitza komunitarioa.
- Eguneko arreta etxebizitza komunitarioan.
- Eguneko arretarako landa-zentroak.
 - Arreta pertsonaleko zerbitzua.
 - Zerbitzu osagarriak:
 - Janari zerbitzua.
 - Arropa garbitzeko zerbitzua.
 - Bainu geriatricoko zerbitzua.

- e. Atsedeen-zerbitzuak, aurreko b, c eta d atalei dagokienez.
- f. Zerbitzu osagarriak etxebizitza komunitarioan.
- g. Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.
- h. Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.
- i. Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-pisua.

2. artikulua. Xedea

Ordenantza fiskal honen xedea da:

a) Zehaztea 1. artikuluan aipatutako zerbitzuak, Udalak hornituak, doakoak diren edo ez; azken kasu horretan, ondorioz, prezio publikoaren menpekoak izango dira.

b) Prezio publikoen aplikazioa arautzea, eta bereziki:

- erabiltzaileak prezio horietan izango duen parte-hartze ekonomikoa zehazteko irizpideak;
- sortzapena, ordainketa eta ordainketaren geroratze partzialak arautzen dituzten irizpideak;
- prezio publikoak ordaintzera behartuta dauden pertsonen gaitasun ekonomikoa zehazteko irizpideak.

c) Prezio publikoen zenbatekoa zehaztea, bai eta gaitasun ekonomikoaren arabera aplikatu daitezkeen hobariak ere.

I. KAPITULUA. PREZIO PUBLIKOARI LOTUTAKO DOAKO ZERBITZUAK ETA ORDAINTZERA BEHARTUTAKO PERTSONAK

3. artikulua. Udalak emandako gizarte-zerbitzuak

Udalak hornitutako eta Ordenantza Fiskal honetan arautzen diren gizarte zerbitzuak doakoak izan daitezke edo prezio publiko bat ordaindu beharko dute, 4. eta 5. artikuluetan, hurrenez hurren, ezarritakoaren arabera.

4. artikulua. Doako zerbitzuak

Erabiltzaile guztientzat doakoak izango dira, haien ahalmen ekonomikoa edozein dela ere, udalak hornitutako zerbitzu hauek:

- Gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.
- Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.
- Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera etxea.

5. artikulua. Prezio publikoa duten zerbitzuak

1. Prezio publikoa izango dute udalak adineko pertsonentzat hornitutako zerbitzu hauek:

- Etxez etxeko laguntza zerbitzua.
- Landa-eremuko ostatu-zerbitzua.
- Eguneko arreta etxebizitza komunitarioan.
- Eguneko arretarako landa-zentroak.
- Atsedeen zerbitzuak etxebizitza komunitarioan.
- Atsedeen zerbitzuak eguneko arretarako etxebizitza komunitarioan.
- Atsedeen hartzeko zerbitzuak eguneko arretarako landa-zentroetan.
- Janari zerbitzu osagarriak etxebizitza komunitarioaren zerbitzuaren erabiltzaile iraunkorren senideentzako.

— Erabiltzaile ez-iraunkorren zerbitzu osagarriak:

- Janari zerbitzua.
- Bainu geriatrikoko zerbitzua.
- Arropa garbitzeko zerbitzua.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan zerrendatutako zerbitzuei dagozkien prezio publikoak, ordenantza fiskal honetako I. eranskinean finkatuta geratzen dira. Prezio horiek eguneratu edo aldatzen ez diren bitartean aplikatuko dira, 27. artikuluan aurreikusitakoarekin bat.

3. Inor ez da geratuko ordenantza fiskal honetan finkatutako prezio publikoak dituzten gizarte zerbitzuen estalduratik kanpo baliabide ekonomikorik ez izateagatik.

6. artikulua. Ordaintzera behartutako pertsonak

1. Prezio publikoak ordaintzera behartuta daude, ordenantza fiskal honetan araututakoaren arabera:

a) 5.1 artikuluan aurreikusitako zerbitzu bakoitzaz zuzenean baliatzen diren pertsona fisikoak, 1. paragrafo honetako b) paragrafoko kasuetan ez daudenean.

b) Adinez nagusi diren pertsonen kasuan, legezko ordezkariaren edo zaintzailearen edo egitezko zaintzailearen bitartez jarduten dutenean, udalak ematen dituen zerbitzuak eskuratzeko araudian aurreikusitako baldintzetan, azken horiek ordaindu beharko dute. Hala ere, kasu horietan, ordainketa ordezkaturako pertsonaren errenta eta ondarearen kargura egingo da, eta zenbatutako ahalmen ekonomikoa ordezkaturako pertsonarena izango da.

2. Hala badagokio, 60 urtetik aurrera erabiltzaileak doan egindako eskualdaketa baten edo eskubideei uko egitearen onuradun izan diren pertsonak edo zerbitzuaren lehen eskaera aurkeztu aurreko 10 urteetan egindakoek ordaindu beharko dute subsidiarioki.

Ondasun higieziinei dagokienez, zorra eskatzeko unean merkatuan dagoen balio eguneratura arte iristen da ordaintzeko betebeharra.

Gainerako ondasunen dohaintzetan, dohaintzaren datan eskualdaketa baten balioa, dagokion KPlaren arabera eguneratua, hartuko du ordaintzeko betebeharrak.

Era berean, erabiltzailearen ondare osoa edo zati bat hirugarren pertsona baten alde abal-emaile, hipoteka-bermatzaile edo pareko figura gisa sinatzeagatik enbargatu denean, hirugarren pertsona horrek modu subsidiarioan ordaindu beharko du prezio publikoa. Ordaintzeko betebeharrak hartzen du abala, hipoteka edo antzeko figura eratzeko eskriturretan edo, halakorik ezean, bahitura eskriturretan egotzitako tasazio balioa.

II. KAPITULUA. ERABILTZAILAREN PARTAIDETZA EKONOMIKOA ZEHAZTEKO IRIZPIDEAK

7. artikulua. Prezio publikoaren ordainketa osoa

1. Ordenantza fiskal honen 6.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan zerbitzuak ordaintzera behartuta dauden pertsonak dagokion prezio publikoa osorik ordainduko dute horretarako ahalmen ekonomiko nahikoa dutenean, prezio hori ordaintzen dela ziurtatzeko berme egokiak formalizatzea eskatu ahal izatearen kalterik gabe, ordenantza fiskal honen 13. artikuluan aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan.

2. 1. paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ordaintzera behartuta dauden pertsonak, ordenantza fiskal honen 6.1 artikuluan aurreikusitako terminoetan, gaitasun ekonomiko nahikoa dutela ulertuko da, gaitasun hori, ordenantza fiskal honen III. tituluaren I. kapituluaren I. artikuluan aurreikusitakoarekin bat zenbatuta, II. eranskinean adierazitako muga parekoa edo handiagoa denean, zerbitzu motaren arabera.

3. Ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren ahalmen ekonomikoa, ordenantza fiskal honen 6.1. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, artikuluko honen 2. paragrafoan aipatzen diren mugak baino txikiagoa bada, 6.2 artikuluan definitutako ordaintzera behartuta dauden pertsonengana joko da, halakorik dagoenean, erabiltzailearen ekarpena osatzeko asmoz, prezio publikoaren zenbateko osoa estali arte, edo nahitaezko prezioa ordaintzeko gaitasunik ez duenean, 6.1 artikuluan zehaztutako moduan.

8. artikulua. Hobariak

1. 6.1. artikuluan aurreikusitako moduan ordaintzera behartuta dauden pertsonen prezio publiko osoa ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikorik ez dutenean —ordenantza fiskal honen III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoarekin bat zenbatuta—, prezio publiko horiek II. eranskinean ezarritako mugak baino txikiagoak direlako, hobariak eskuratu ahal izango dituzte, alde aurretik eskatuta.

Hobari horiek 5.1 artikuluan aipatutako prezio publikoko zerbitzu guztiei aplikatuko zaizkie, honako hauei izan ezik:

- a) Landa-inguruneke ostatu-zerbitzuak.
- b) Zerbitzu osagarriak.
- c) Atsedeen hartzeko zerbitzuak.

2. Aurreko paragrafoan aipatutako prezio publikoari aplikagarri zaizkion hobariak progresibotasun printzipio bati jarraituz zehaztuko dira, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoaren arabera, gaitasun hori ordenantza fiskalaren III tituluko I kapituluan ezarritako irizpideekin bat eginda zenbatuta.

3. Artikulu honetan aurreikusitako hobariak ordenantza fiskal honen III. eranskinean finkatzen dira, eta I. eranskinean finkatutako prezio publikoak indarrean dauden bitartean aplikatuko dira. Prezio horiek 28. artikuluan ezarritako bidetik eguneratu edo aldatzen direnean, dagozkien hobariak ere zehaztuko dira.

9. artikulua. Salbuespen partzialak zerbitzuen erabilera motaren arabera

1. Zenbait zerbitzuren erabilera eteten bada, prezio publikoaren salbuespen partzial hauek aplikatuko dira:

a) Adinekoentzako etxebizitza komunitarioen eta eguneko zentroko zerbitzuen erabiltzaileen gizarteratzea eta familia-integrazioa errazteko, mota edo modalitatea edozein dela ere, pertsona horiek zentroetatik 5 egun osoko edo gehiagokoaldi jarraituetan irteten direnean —baldin eta zerbitzuaren benetako funtzionamendu-egunei badagozkie—, gehienez ere 45 egun/urteko, plazaren erreserba gisa eta adierazitako aldietan, prezio baliokide bat ezarriko zaie. Integrazio sozio-familiarraren ondoriozko absentsia 45 egun/urteko baino gehiagokoa denean, salbuespen partziala aplikatzeari utziko zaio eta esleitutako prezio publiko osoa aplikatuko da 46. egunetik aurrera. a) idatz-zati honetan aurreikusitakoa ez da aplikatuko etxebizitza komunitarioko aste-buruko eguneko arretaren modalitatean.

b) Etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileek zerbitzua aldi baterako erabiltzeari uzten diotenean, ez da inolako preziorik sortuko zerbitzua 7 egun natural jarraian edo gehiagotan eteten bada. Horretarako, erabiltzaileek idatziz jakinarazi beharko dute egoera hori, gutxienez 7 egun lehenago, behar bezala justifikatutako egoeretan izan ezik, egoera horietan, presagatik, aurreabisurako epe hori betetzea ezinezkoa bada. Zerbitzua erabiltzen ez bada 7 egun natural jarraian baino gutxiagoan, esleitutako prezio publikoa ordaindu beharko dute.

2. Ez da prezio publikoaren ordainketaren salbuespen partzialik aplikatuko etxebizitza komunitarioaren eta eguneko zentroko zerbitzuen erabiltzaileak ospitaleratzten diren kasuetan, horien mota edo modalitatea edozein dela ere; beraz, ez da prezio publikoaren sortzapena etengo. Aurrekoa alde batera utzi gabe, ospitalizazioak ondoz ondoko 7 egun edo gehiago irauten duen

kasuetan, erabiltzaileak ordaindu beharreko prezioa ehuneko 90 izango da ospitalizazio-aldiaren lehenengo egunetik aldi hori amaitu arte, salbu eta etenaldiaren iraupen jarraitua 6 hilabetetik gorakoa denean, etenaldia gauzatzen den egunetik kontatzen hasita; muga horretatik aurrera, ospitaleratu aurretik erabiltzaile gisa zuen zerbitzua azkendu egingo da.

3. Ez da prezio publikoaren ordainketaren salbuespen partzialik aplikatuko, baldin eta, zerbitzuetara sartzeari buruzko araudiaren arabera, zerbitzua eteten bada Peñacerrada-Urizaharreko Udalak eskatutako informazioa emateko eta dokumentazioa aurkezteko betebeharra berandu betetzeagatik edo prezio publikoa behin eta berriz ez ordaintzeagatik.

4. Atsedeen zerbitzuen esparruan, urte bakoitzeko lehenengo 15 egunetan ez dute prezio publikorik ordaindu beharko honako baldintza hauek betetzen dituzten erabiltzaileek:

a) Familia-ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa jasotzea.

b) Atsedeen-modalitate bakoitzerako berariaz ezarritakoak.

c) Dagokion urtean, ebazpen bidez, ez izatea emanda zerbitzuarekin lotutako prestazio ekonomikoa bat, gutxienez 15 eguneko atsedendian, zeina zerbitzuez baliatzeko erregelamenduan zehaztuko baita. Prestazio hori aldi laburrago baterako eman bada, ez dute prezio publikorik ordaindu beharko 15 egun osatu arte geratzen diren hurrengo atsedeen zerbitzuko egunek.

10. artikulua. Erabilera askeko zenbatekoak

1. Adinekoentzako eta eguneko arretarako etxebizitza komunitarioarentzat aurreikusitako ordainketaren geroratze partzialetan prezio publiko gisa ordaindu beharreko hileko zenbatekoa zehazterakoan, erabiltzailearen erabilera librerako ez da inola ere ondorengo muga hauek baino zenbateko txikiagorik geratuko:

a) 2.751,84 euro urtean, adinekoentzako etxebizitza komunitarioen kasuan.

b) 4.586,40 euro urtean, adinekoentzako etxebizitza komunitarioan eguneko arreta eskaintzen duten zerbitzu edo zentroen kasuan.

2. Artikulu honetan aipatutako erabilera askeko zenbatekoak bermatutzat joko dira, urteko zenbaketan errenta nahikorik ez badago ere, ondare konputagarria honako zenbateko hauek baino handiagoa den kasuetan:

a) 3.000,00 euro erraz gauzatzeko ondarean, etxebizitza komunitarioaren kasuan.

b) 15.000,00 euro erraz gauzatzeko ondarean, etxebizitza komunitarioko eguneko arreta-zerbitzuaren eta etxebizitza komunitarioko asteburuko eguneko arreta-modalitatearen kasuan.

3. artikulua honen aurreko paragrafoetan sartzen ez diren zerbitzuen kasuan, erabilera askeko zenbatekoak zerbitzu mota bakoitzari dagozkion hobariak zehazteko aplikatutako formulak bermatuko ditu, Ordenantza Fiskal honen III. eranskinean ezarritakoak.

II. TITULUA. PREZIO PUBLIKOEN SORTZAPENA, ORDAINKETA ETA ORDAINKETAREN ATZERAPEN PARTZIALA

I. KAPITULUA. SORTZAPENA ETA ORDAINKETA

11. artikulua. Sortzapena

Araudi honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko betebeharra 5.1 artikuluan zehaztutako edozein zerbitzu benetan ematen hasten den egunean sortuko da, eta data horren eta zerbitzuaren prestazioa behin betiko uzten den unearen arteko aldiari dagokionez sortuko da.

12. artikulua. Ordainketa

1. Esleitutako prezio publikoen ordainketa —osoak, hobaridunak edo partzialki salbuetsiak izan— dagokion ordainagiria kobratzeko aurkezten den unean egingo da, banku-helbideratze bidez.

2. Erabiltzaileak, edo, hala badagokio, ordaintzeko betebeharra duenak, ez badu dagokion kuota ordaintzeko behar besteko ahalmen ekonomikorik, 6.2 artikuluan definitutako ordainketa subsidiarioki egin behar duten pertsonak daudenean, 7.3 artikuluan jasotako baldintzetan jardungo da.

3. Ordainketaren zati bat geroratu dezaketen zerbitzuen kasuan, ordainketa egin behar duen pertsonak gerorapen hori eskatzea erabakitzen duenean, eta aurreko paragrafoan aurreikusitako inguruabarrak gertatzen ez direnean, honela jokatuko da:

a) Hileko bakoitzean eskatzekoa den prezioaren zatia ordaintzeko, dagokion ordainagiria banku-helbideratze bidez kobratzera aurkeztu beharko zaio ordaindu behar duenari.

b) Gainerako zatia, sortutako interesekin batera, zerbitzua uzten den unean ordainduko da, honako kasu hauetan izan ezik:

- Pertsonak ordainketa zati batean geroratu dakiokkeen beste zerbitzu bat eskuratzeko zerbitzua erabiltzeari utzi eta geroratze hori aukeratzen badu; kasu horretan, lehen zerbitzuari aplikatutako geroratzeak sortutako zorra helburu-zerbitzuan sortzen den zorrari gehituko zaio, ordenantza fiskal honen 29. artikuluan 4 c) atalean aurreikusitako moduan.

- Peñacerrada-Urizaharreko Udalak ekitaldia baino lehen edo ondoren eskatuko dela zehazten badu, erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa aldatu egin dela dakielako, eta, betiere, 16.4 artikuluan aurreikusitako kasuan.

13. artikulua. Ordainketa-konpromisoa eta bermeak eratzeari

1. Ordainketaren zati bat geroratu ezin den zerbitzuen kasuan, eska daitekeen prezio publiko ordaintzeko konpromisoa zerbitzua erabiltzeagatik beragatik eman dela ulertuko da, hura esleitzen duen ebazpenaren ondoren.

2. Ordainketa zati batean geroratu ahal den zerbitzuen kasuan, ordainketa egiteko konpromisoaren inprimakia behar bezala beteta aurkeztu beharko da, ordainketa egin baino 7 egun baliadun lehenago gutxienez, ordenantza fiskal honen IV. eranskinean jasotako erduei jarraituz, kasu desberdinei erantzuten baitiete (geroratzea eskatzen den ala ez, edo formularioa aurkezten duenaren arabera). Ordainketa geroratzea eskatuz gero, ordenantza fiskal honen 16. artikuluan araututako zorra aitortzeko agiria ere bete beharko da, IV. eranskinean jasotako erduei jarraiki, formularioa aurkezten duen pertsonaren arabera.

3. Ordainketa zati batean geroratu daitezkeen zerbitzuen kasuan, geroratzea erabakitzen den ala ez alde batera utzita, Peñacerrada-Urizaharreko Udalak egokitzen dituen bermeak eskatu ahal izango dizkie aldizkako errentarik ez duten pertsonari, baldin eta hileko zenbaketan eskatzen den prezio publikoaren zenbatekoa edo handiagoa badute.

4. Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, bermea eratzeko eskatu ahal izango da zuzenbidean onartutako moduetako edozeinetan, aitortutako zorra edo sor daitekeena ordainduko dela ziurtatzeko. Kasuaren inguruabarren arabera, Peñacerrada-Urizaharreko Udalak egokitzen eta nahikotzat jotzen duen ordainketa bermatzeko edozein formula erabaki ahal izango da. Bermeak hartzen duen forma berariaz adierazi beharko da Ordenantza Fiskal honen IV. eranskinari dagozkion ereduetan.

5. Geroratzea eskatzea erabakitzen denean eta bermea higiezinaren ondareak osatzen duenean, aipatutako ondarea identifikatzeko datu guztiak sartu beharko dira, haren erregistro-inskripzioan jasota dauden moduan, zorra aitortzeko dokumentuan agertu behar duen eskaintako berme-moduaren deskribapenean, aipatutako paragrafoan xedatutakoaren arabera. Kasu horietan, zorra Jabetza Erregistroan inskribatzea eta dagokion notario-eskritura eskatuko da.

6. Artikulu honen 4. eta 5. paragrafoetan aurreikusitako baldintzetan bermerik eratu ezin bada edo berme hori nahikoa ez bada, Peñacerrada-Urizaharreko Udalak honako dokumentu hauek aurkezteko eskatu ahal izango dio erabiltzaileari edo ordaintzeko betebeharra duen pertsonari, Ordenantza Fiskal honen 6. artikuluan aurreikusitako baldintzetan: aurrezki liburuxka arrunten mugimendu-orriak/epea eta/edo aurreko bost urteetako banku-erakundeen edo aurrezki-kutxen kontu korronteak. Halaber, edozein tituluren bidez titular edo titularkide den diruzko edozein ondasun mota adierazi beharko da.

Udalak aurkeztu dituen dokumentuei buruzko informazio argigarria eskatu ahal izango dio ordaintzera behartuta dagoen pertsonari, ordenantza fiskal honen 6. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako.

II. KAPITULUA. ORDAINKETA PARTZIALKI GERORATZEA ETA ZORRA AITORTZEA

14. artikulua. Ordainketaren gerorapen partziala aplikatzea

1. 6.1. artikuluan aurreikusitako terminoetan ordainketa egin behar duen pertsonak dagokion prezio publikoa ordaintzeko behar adinako ahalmen ekonomikorik ez duenean, ordenantza fiskal honen II. eranskinaren 1. eta 2. paragrafoetan definitutako terminoetan, edo ahalmen hori izanik likidezia edo erraz egiteko ondare nahikorik ez duenean, aipatutako II. eranskinaren 3. paragrafoan zehaztutako terminoetan, prezio publikoaren ordainketaren berariazko gerorapen partziala jaso ahal izango du, aldeztu aurretik aurreikusitako baldintzetan. Eskubideak eskaeraren datatik aurrera sortuko ditu ondorioak, eta eskaera zerbitzuan edo zentroan ingresatu edo sartu aurrekoa denean, sarrera edo sarrera horren datatik aurrera.

2. Ordainketaren zati bat geroratzea hauei aplikatuko zaie:

- a) Adinekoentzako etxebizitza komunitarioa.
- b) Eguneko arreta-zerbitzua etxebizitza komunitarioan eta asteburuko eguneko arreta-modalitatea etxebizitza komunitarioan.

Arestian aipatutako ordainketaren geroratze partziala ez zaie aplikatuko adierazitako zerbitzuetako atsedeen-zerbitzuari, ez eta zerbitzu osagarriei ere.

3. artikulu honetan aipatutako prezio publikoaren ordainketaren geroratze partziala honako irizpide hauen arabera aplikatuko da:

a) Etxebizitza komunitarioaren zerbitzuaren kasuan, ordainketaren geroratze partziala prezio publiko osoaren eta ordenantza fiskal honen 15. artikuluan a) idatz-zatian aurreikusitako kalkularen ondoriozko zenbatekoaren arteko aldeari aplikatuko zaio.

b) Artikulu honetako 2 b) idatz-zatian aipatutako etxebizitza komunitarioko eguneko arretaren kasuan, ordainketaren geroratze partziala aplikatuko da hobaridun prezioaren edo gaitasun ekonomikoaren arabera kalkulatu gabeko prezioaren eta Peñacerrada-Urizaharra Udaleko organo eskudunak ezarritako hileko zenbateko ordaingarriaren arteko diferentziaren gainean, urteko likideziaren arabera, erabilera libreko zenbatekoak bermatzen dituen ordenantza fiskal honetako hobarien III. eranskinean bermatutakoarekin bat etorriz.

4. Prezio publikoaren ordainketaren geroratze partziala ez zaie aplikatuko ordenantza fiskal honen 8. artikuluan aipatzen diren hobaridun zerbitzuei, artikulu honen 2.b) paragrafoan xedatutakoa salbu.

5. Prezio publikoaren ordainketaren zati bat geroratzeak ekitaldi bakoitzean indarrean dagoen diruaren legezko interesa sortuko du.

6. Artikulu honetan aipatutako prezio publikoaren ordainketaren geroratze partziala aplikatzeko, gizarte-zerbitzuen erabiltzaileak, edo haren legezko ordezkariak edo legezko zaintzaileak edo egitezko zaintzaileak, familia-unitatearen urteko ahalmen ekonomikoari dagokion dokumentazio eguneratua aurkeztu beharko du, artikulu honen 1. paragrafoan aipatutako eskaerarekin batera, unitate hori ordenantza fiskal honen 23. artikuluan definitzen den moduan.

15. artikulua. Gerorapenaren aplikazio modalitateak eta zenbatekoa

Prezio publikoaren ordainketaren geroratze partzialak honako aplikazio-modalitate hauek izango ditu, zerbitzu-motaren arabera:

a) Ordenantza Fiskal honen 14.2 a) artikuluan aurreikusten den adineko pertsonentzako etxebizitza komunitarioaren kasuan, zerbitzu horien erabiltzaileei prezio publikoaren ordainketa geroratzea onartzen zaienean, honako hauek egin beharko dituzte:

- Hileko ordainketa partzialaren kontzeptuan, organo eskudunak urteko likideziaren arabera zehaztutako hileko zenbateko ordaingarriaren eta 10. artikuluan aipatutako erabilera askeko zenbatekoaren arteko aldea ordaintzea.

- Egoiliarren ezkontidea edo harekin ezkontzakoaren antzeko lotura duen pertsona —lotura hori Ordenantza Fiskal honen lehen xedapen gehigarrian zehazten den moduan— familiaren etxebizitzan geratzen bada, aurreko paragrafoan adierazitako xedapen askeko zenbatekoa ehuneko 50 handituko da.

- Zorraren aitortpena egitea, Ordenantza Fiskal honen 16. artikuluan aurreikusitako baldintzetan, aurreko atalean aurreikusitako hileroko zenbatekoarekin estaltzen ez den prezio publikoaren zatigatik, zeinaren ordainketa geroratuta geratzen den.

- Hala badagokio, zehaztutako bermea eratzea, 13. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta.

b) Adinekoentzako etxebizitza komunitarioko eguneko arretaren kasuan eta 14.2 b) artikuluan aurreikusitako etxebizitza komunitarioko asteburuko eguneko arretaren modalitatean, zerbitzu horien erabiltzaileei prezio publikoaren ordainketa geroratzea onartzen zaienean, honako hauek egin beharko dituzte:

- Hileko ordainketa partzialaren kontzeptuan, organo eskudunak horretarako zehaztutako zenbatekoa, urteko likideziaren arabera, eta 10. artikuluan aipatutako erabilera askeko zenbatekoa ordaintzea.

- Zerga Ordenantza honen 16. artikuluan jasotakoaren arabera, aurreko apartatuan aurreikusitako hileko kopuruan estaltzen ez den prezio publiko hobaridunari zorra aitortzea, ordainketa geroratuta geratzen baita.

- Hala badagokio, zehaztutako bermea eratzea, 13. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuta.

16. artikulua. Zorraren aitortpena

1. Aurreko artikuluetan aurreikusitako prezio publikoaren ordainketaren zati bat geroratuz gero, Ordenantza Fiskal honen 6. artikuluan arabera ordainketa egin behar duten pertsonak zorra aitortzeko dokumentu bat sinatu beharko dute Peñacerrada-Urizaharreko Udalaren alde, esleitutako prezio publikoaren zenbatekoaren eta benetan ordaindutakoaren artean dagoen aldeagatik, Ordenantza Fiskal honen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Zorraren ordainketa Jabetza Erregistroan 13.6 artikuluan aurreikusitako baldintzetan inskribatutako berme bat eratzuz bermatu bada, eskritura publikoan jasotzeko eta erregistro horretan inskribatzeko gastuak higiezinaren jabearen kargura izango dira, eta ordainketa-geroratzeek sortutako zorrari metatu ahal izango zaio; ondorio guztietarako, azken horien izaera bera izango du.

Halaber, zorrari metatu ahal izango zaizkio eta zorra aitortzeko dokumentuan jaso aurrez zordundutako zenbatekoak, 29.4 artikuluan aurreikusitako moduan.

2. Zorraren aitortpena dagokion ebazpenean esleitutako zentro edo zerbitzuan ingresatu edo sartu aurretik formalizatu beharko da. Ondorio horietarako, bertan sartu aurretik, gutxienez zazpi egun baliodun lehenago izenpetuko da zorraren aitortpena.

Peñacerrada-Urizaharreko Udalak zorra Jabetza Erregistroan inskribatzeko eskatu badu, ez da dagokion zerbitzuan ingresatuko edo sartuko harik eta dagokion bermea eratzen den arte; horretarako, Jabetza Erregistroan inskribatuko da eta notarioaren eskritura egingo da, 13.6 artikuluan aurreikusitako moduan.

Ordainketa zati batean atzeratzen ez bada zentroan edo zerbitzuan ingresatu edo sartu baino lehen, eta zentroan edo zerbitzuan ingresatu edo sartu ondoren egiaztatzen bada pertsonaren egoera ekonomikoak nabarmen aldatu direla halako moldez non ordainketa geroratu daitekeen, une horretan formalizatu beharko da zorraren aitorpena.

3. Ordenantza fiskal honen 6. artikuluan aipatzen diren eta ordaintzera beharturik dauden pertsonen dagokie zorra aitortzeko agiria sinatzea. Pertsona horiek agiri horretan adierazi beharko dute zeintzuk diren beren identifikazio datuak eta helbidea, eta nori jakinarazi beharko zaion, zerga ordenantza honetako 17 artikuluan jasotako kasuetan eta moduan, aitorpen horretatik eratorritako zorraren likidazioa, erabiltzaileak zerbitzua erabiltzeari uzten dionean edo zorra aitortzea eragin zuen egoeran aldaketaren bat gertatzen denean

4. Zorra onartzeak eta hari lotutako ordainketa-konpromisoak berekin ekarriko dute ordenantza fiskal honetako 6. artikuluan definitutako ordainketa egin behar duten pertsonen ondasunak ez besterentzeko eta ekonomia- edo ondare-eskubideei uko ez egiteko betebeharra hartzea, Peñacerrada-Urizaharreko Udalaren alde aurreko baimen berariazkorik gabe, zorra kitatzen ez den bitartean. Betebehar hori ez betetzeak ordainketaren gerorapen partziala azkentzea ekarriko du, eta une horretatik aurrera ordaintzeko dagoen zenbateko osoa ordaintzeko eskatu ahal izango da.

5. Udalak, alde aurretik eskatuta, zorra aitortzeko dokumentu eguneratu bat emango die ordaintzera behartuta dauden pertsonen, informazioa emateko. Dokumentu horretan, eskaera egin den egunean zenbat zor duten adieraziko da.

17. artikulua. Saldo zordunaren jakinarazpena

1. Ordainketaren zati bat geroratu eta zorra aitortzen den kasuetan, zerbitzua behin betiko amaitu ondoren, Peñacerrada-Urizaharreko Udalak emaitzako zorraren saldoa jakinaraziko dio, ebazpen bidez; saldo horren zordunari berari bidaliko zaio ebazpena, baldin eta zerbitzua ez bada amaitu erabiltzailea hil delako, edo, hala badagokio, ordaintzera behartuta dauden dohaintza-hartzaileei, edo balizko oinordekoei; saldo horretan, printzipala, sortutako interesak eta ordaindu gabeko edo kobratu gabeko ordainagiriak, halakorik balego, sartu behar dira, aipatutako ebazpena jaso eta hurrengo 60 egun naturaleko epean zorra kita dadin, eta azken egun horretatik aurrera berandutze-interesak sor daitezten.

2. Erabiltzaile zordunak zerbitzua erabiltzeari uzten badio beste zerbitzu batean arreta jasotzeko, eta zerbitzu horretan prezio publikoaren ordainketa ere ordainketaren geroratze partzialari lotuta geratzen bada —zorraren onarpen batez bideratua 16.1 artikulua azken tartekian, ordenantza fiskal honen 29.4 artikuluaekin lotuta, aurreikusitako terminoetan—, lehen zerbitzuari dagokion saldo zorduna jakinaraziko zaio, bai eta bi zorren metaketa ere, destinoko azken zerbitzuaz baliatzeari utzi arte.

18. artikulua. Ondare-betearazpena

Zorra kobratzeko, ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren ondasunen ondare-betearazpena jo behar bada —ordenantza fiskal honen 6. artikuluan aurreikusitako terminoetan—, betearazpen hori ez da haren etxebizitzaren gainean egiaztatuko, baldin eta hura beharrezkoa bada erabilera propiorako, edo erabiltzailearen familia-unitatearen ohiko bizileku bakarra izaten jarraitzen badu, ordenantza fiskal honen 23. artikuluan definitutakoaren arabera, edo ordaintzera behartutako pertsonaren familia-unitatearena, pertsona erabiltzailea ez denean, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, aipatutako etxebizitzaren traba edo enbargoa.

Artikulu honetan aurreikusitako ondare-betearazpena ez da inola ere aplikatuko ordenantza fiskal honen 6.1.b) artikuluan aurreikusitako ordaintzera behartuta dagoen pertsonaren ondarearen gainean, hura 6.2 artikulua arabera subsidiarioki ordaintzera ere behartuta dagoenean izan ezik.

III. TITULUA. KUDEAKETA ETA LIKIDAZIO ARAUAK

19. artikulua. Eskumena

Araudi honetan jasotako prezio publikoen kudeaketa eta likidazioa Udalari dagozkio, beste erakunde batzuei eta, bereziki, Arabako Foru Aldundiari eta haren erakunde autonomoari, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari (GOFE) eskuordetu ahal zaizkien eginkizun eta ahalmenei kalterik egin gabe.

I. KAPITULUA. GAITASUN EKONOMIKOA ZEHAZTEA

20. artikulua. Gaitasun ekonomikoaren osagaiak

1. Erabiltzailearen ahalmen ekonomikoa kalkulatzeko, eta prezio publikoan duen partaidetza zehazteko, familia-unitatearen errenta eta ondarea baloratu beharko dira, urteko zenbaketan, eta horretarako kapitulu honetan ezarritako balorazio-irizpideak aplikatuko dira.

2. Peñacerrada-Urizaharreko Udalak emandako zerbitzu baten eskatzaile baten gaitasun ekonomikoa kalkulatzeko, baldin eta zerbitzu horretan sartzeagatik bere familia-unitatea osatu behar badu, eskatzailearen diru-sarrerak eta ondarea soilik hartuko dira kontuan.

3. Ahalmen ekonomikoa zenbatzeko, honako hauek erabiliko dira:

a) Eskuragarri dauden azken datu fiskalei dagozkien balioak, salbu eta, geroagoko data batean, balio horiek aldatu dituen egitate garrantzitsuren bat gertatu bada; kasu horretan, datu berrienak hartuko dira kontuan.

b) Hiri- edo landa-izaerako ondasunen kasuan, katastro-balioaren arabera konputatuko dira, erabilgarri dauden azken datu fiskalak erreferentzia gisa hartuta, eta kokatuta dauden Autonomia Erkidego edo Lurralde Historiko bakoitzaren ondasun higiezinaren balorazio-araudiaren arabera eguneratuta.

c) Edozein motatako ondasunen dohaintzak edo horien gaineko eskubideei uko egiteak, dohaintzaren egunean eskualdaketak zuen balioaren arabera baloratuko dira, dagokion KPlaren arabera eguneratuta.

21. artikulua. Errenta

1) Aurreko artikuluan aurreikusitako ahalmen ekonomikoa kalkulatzearen ondorioetarako, errenta edo sarrera konputagarritzat hartuko dira familia-unitateak lanetik eratortzen diren eta urtero dituen etekin eta eskubideak:

a) Funts publiko edo pribatuen kargurako pentsio eta prestazio ekonomikoak, jasotzen diren diru-sarrera gordinak zenbatuta; ondorio horietarako, halakotzat hartuko dira zerbitzuaren hartzailea subjektu kausatzailea den pentsio, sorospen, prestazio ekonomiko edo beste edozein eskubide ekonomiko, artikulu honetako 2. paragrafoan aurreikusitakoak izan ezik.

b) Norberaren edo besteren konturako lanetik datozen etekin osoak.

2) Errenta zehazterakoan, honako prestazio hauek ez dira kontuan hartuko:

a) Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko azaroaren 14ko 39/2006 Legean jasotako izaera finalista duten prestazio ekonomikoak, hots: familia-inguruko zainketetarako prestazio ekonomikoa eta zaintzaile ez-profesionalentzako laguntza, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa.

b) Honako prestazio hauek, a) idatz-zatian aurreikusitako enpresa eta helburu berekoak:

- baliaezintasun handiko osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 194. artikuluan eta hurrengoetan arautua;

- ehuneko 75eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duen 18 urtetik gorako seme-alabagatiko diru-esleipenaren osagarria, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 353.c) artikuluan aurreikusitakoa;

- Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 364. artikuluan aurreikusitako beste pertsona baten beharretatik baliaezintasun ez kotizaziopeko pentsioaren osagarria, Gizarte Segurantzaren arloko xedapen berezietan buruzko abenduaren 10eko 52/2003 Legeak aldatua;

- Elbarriak Gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 12.2.c) artikuluan aurreikusitako enpresa eta azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuak mantentzen duen hiru pertsonagatiko laguntza-subsidioa. Legegintzako errege-dekretu horren bidez, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Lege Orokorraren Testu Bategina onartzen da, eta errege-dekretu horren bidez ezarritako onuradunek errege-xedapen iragankor hori bera betetzen dute.

Ez dira aplikatuko b) idatzi-zati honetan aurreikusitako salbuespenak adinekoentzako etxebizitza komunitarioaren zerbitzuaren kasuan, kasu horren barne izanik idatzi-zati horretan aipatutako prestazio guztien errentaren zerbaketa.

3) Errenta baloratzeko, Arabako Foru Aldundiak 20.3 artikuluan aipatzen diren datu fiskal erabilgarrien arabera emandako informazioa hartuko da erreferentziatzat, eta diru-sarreretatik honako kontzeptu hauen batura hartuko da:

- lanaren etekin osoak;
- lanbide-, enpresa-, nekazaritza- eta abeltzaintza-jardueren etekin osoak;
- egotzitako lan-errenta salbuetsiak, guztira.

Artikulu honetako 2 paragrafoan adierazitako errentak jasotzen direnean, prestazio ekonomiko horien frogagiria aurkeztu beharko da paragrafo horretan jasotako ondorioetarako zerbaketa salbuetsia zehazteko.

4) Hileko errenta zehazteko, urteko errenta hamabi hilabete-saritan zatituko da.

5) Familia-unitatearen errenta oinarri hartuta, bai urteko zerbaketan, bai hileko zerbaketan, erabilzaileari dagokion banakako edo per capita errenta zehaztu ahal izango da; hartarako, familia-unitateak lortutako diru-sarrera guztiak unitatea osatzen duten kideen kopuruarekin zatituta ateratzen den kopurua hartuko da halakotzat.

22. artikulua. Ondarea

1. 20. artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira ondoretzat:

- Familia-unitatea osatzen duten pertsona guztien edo haien zati baten titular diren eduki ekonomikoko ondasun eta eskubideen multzoa, erreferentziatzat hartuta eskuragarri dauden azken datu fiskalak, aktibo finantzarioei buruz eskatzen den informazioarekin osatuak, 20. artikuluan 3. paragrafoan xedatutakoa izan ezik.

- Kapitalizatutako kalte-ordainak eta errentak, ekitaldi batean edo gehiagotan sortu badira.

- Erabilzaileak, haren ezkontideak, ezkontzaren antzeko loturaz lotutako pertsonak — lotura hori Ordenantza Fiskal honen lehen xedapen gehigarrian definitzen den terminoetan — edo ordaintzera behartuta dagoen pertsonak dohainik eskualdatu dituzten ondasun eta eskubideen balioa, dohaintzaren egunean eskualdatu den balioagatik, dagokion KPIaren arabera eguneratua.

2. Ondarean ez dira zenbatuko:

a) Ohiko etxebizitza, salbuespenezko balioa duenean izan ezik; horrelakoetan, katastroko balioa 250.000,00 eurotik gorakoa denean, aparteko balioa duela ulertuko da; horrelakoetan, muga horrekiko katastroko balioaren soberakina zenbatuko da ondarearen ondorioetarako.

Ez da ohiko etxebizitzatzat hartuko, ohiko etxebizitza izan den arren, titularra adinekoentzako etxebizitza komunitarioaren zerbitzuan sartzeagatik ohiko etxebizitza izateari uzten diona, salbu eta 23. artikuluan definitutako familia-unitatea osatzen duten pertsonetako bat edo batzuk etxean geratzen badira.

Ondorio horietarako, ohiko etxebizitzaren kontzeptuaren barruan, etxebizitza propioaz gain, garaje bat eta/edo trasteleku bat ere sartuko dira, bai eta, ohiko etxebizitza familiabakarra denean, landa- edo hiri-izaerakoa, bereizi gabe dagoen partzela erantsia ere.

b) Ondasun eta eskubideen gainean pisua duten eta horien balioa murrizten duten karga eta zamak, ohiko etxebizitza gisa erabiltzen den higiezin eskuratzekoak edo, Peñacerrada-Urizaharreko Udalak onartu ondoren, higiezin birgaitzekoak izan ezik. Karga konputagarri horiek ez dute, inola ere, balio garbi negatiborik sortuko.

c) Zor eta betebeharrak pertsonalak.

d) Bereziki babestutako ondare bati emandako ondasunak eta eskubideak, Desgaitasuna duten Pertsonen Ondarea Babesteko eta Kode Zibila Aldatzeko azaroaren 18ko 41/2003 Legearen, Prozedura Zibilaren Legearen eta Zerga Araudiaren babespean, helburu horrekin (ekainaren 2ko 8/2021 Legeak aldatu zuen), salbu eta pertsona hori bada aurreikusitako beharrezanen titularra.

e) Jarduera ekonomiko bati atxikitako ondasun higiezinak, landa-ondasunak edo hiri-ondasunak, baldin eta horien etekinak 21. artikuluan adierazitako moduan zenbatzen badira errenta zehazteko.

3. Ondarea hilabeteka zehazteko, ondarearen urteko zenbatekoa hamabi hilabete-saritan zatituko da.

4. Familia-unitatearen ondarea oinarri hartuta, aurreko paragrafoetan aurreikusitakoaren arabera zenbatuta, erabiltzaileari dagokion banako edo per capita ondarea zehaztu ahal izango da, bai urteko zenbaketan, bai hileko zenbaketan. Halakotzat hartuko da ondare-kopuru osoa familia-unitate horretako kideen kopuruaz zatituta ateratzen den kopurua.

23. artikulua. Familia-unitatea

1. Kapitulu honetan aurreikusitako ondorioetarako, familia-unitatearen honako osaera hauek hartuko dira kontuan:

- a) zerbitzuaren onuraduna adinez nagusia denean, familia-unitateko kideztat hartuko dira;
 - zerbitzuaren onuraduna bera;
 - haren ezkontideak edo hari lotutako pertsonak, legeaz aitortuta eta behar bezala egiaztatuta dagoen ezkontzaren antzeko harremanaren bidez;
 - ondorengo adingabeak, baldin eta eskatzaileak guraso-ahala badu eta horien sostengu ekonomikoari laguntzen badio, modu partzialean edo osoan;
 - 18 urtetik gorako seme-alabak, ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna badute, baldin eta zerbitzuaren onuradunarekin bizi badira;
 - ikasketa akademiko arautuak egiten ari diren 18 eta 25 urte bitarteko seme-alabak, baldin eta eskatzaileak guraso-ahala badu eta horien sostengu ekonomikoari laguntzen badio, modu partzialean edo osoan.

Ondorengoen zaintza partekatuaren kasuetan, pertsona horiek zerbitzua eskatu duen pertsonaren familia-unitatean sartuko dira. Aurreko ahaide biek Peñacerrada-Urizaharreko Udalak emandako zerbitzuez baliatzeko eskatzen dutenean, lehenengo ondorengoa mendekotasun mailarik handiena duen eskatzailearen familia-unitatean sartuko da, bigarren ondorengoa mendekotasun mailarik txikiena duen eskatzailearen familia-unitatean, eta horrela hurrenez hurren, ondorengo kopuruaren arabera.

2. Nolanahi ere, pertsona bat familia-unitate bakar bateko kide izan daiteke.

24. artikulua. Gaitasun ekonomikoa baloratzeko irizpideak

1. Ahalmen ekonomikoa errentaren urteko zenbatekoaren —familia-errenta edo per capita errenta, zerbitzu-motaren arabera— eta ondarearen urteko zenbatekoaren —familia-ondarea edo indibiduala, zerbitzu-motaren arabera— batura eginda lortzen den zenbatekoaren balioki-dea izango da, eta portzentaje horiek erabiltzailearen adinaren arabera aldatuko dira, jarraian zehazten den moduan:

a) 65 urtetik gorako pertsonak, beren ondarearen ehuneko 20.

b) 65 urte izan gabe ere, salbuespen gisa, adinekoentzako zerbitzu edo zentroetara sartzen diren pertsonen artikuluko honetako 1. paragrafoa a) idatz-zatian aurreikusitakoa aplikatuko zaie.

2. Prezio publikoa familia-unitatearen ahalmen ekonomikoaren arabera ezartzen den zerbitzuen kasuan, berariazko irizpide hauek aplikatu beharko dira:

a) Familia-unitatea pertsona bakarrekoa denean, 1. paragrafoan aurreikusitakoa zuzenean aplikatuta kalkulatu da gaitasun ekonomikoa.

b) Familia-unitatea bi pertsonak osatzen dutenean, 1. paragrafoan aurreikusitakoaren arabera kalkulatu hileko gaitasun ekonomiko osoaren ehuneko 80ren gainean kalkulatu da prezio oso edo hobariduna.

c) Familia-unitatea bi pertsonak baino gehiagok osatzen badute, b) letran ezarritako ehuneko 80ko ehuneko ehuneko 5 murriztuko da gainerako pertsona bakoitzeko.

3. Prezio publikoa norbanakoaren gaitasun ekonomikoaren arabera zehazten den zerbitzuen kasuan, familia-unitatearen errenten eta ondarearen batura kide kopuruaz zatitzearen emaitza izango da.

4. Ahalmen ekonomikoa hileko zenbaketan zehazteko, urteko ahalmen ekonomikoa hamabi hilabete-saritan zatituko da.

5. Adinekoentzako etxebizitza komunitarioaren prezio publikoa zehazteko, gaitasun ekonomiko indibiduala erabiliko da; adinekoentzako etxebizitza komunitarioan eguneko arreta-zerbitzurako, berriz, familia-unitatearen gaitasun ekonomikoa.

II. KAPITULUA. EBAZPENA, BERRIKUSPENA ETA EGUNERATZEA

25. artikulua. Ebazpena

1. Udalarik dagokio ordenantza fiskal honetan aurreikusitako prezio publikoak dagokion Ebazpenaren bidez zehaztu eta aplikatzea.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitako ebazpenak alderdi hauei buruzko erabakiak hartuko ditu:

a) Prezio publikoaren ordainketaren zati bat geroratu ezin duten zerbitzuen kasuan, ebazpenak zerbitzuari aplikatu beharreko prezio publiko osoa adieraziko du, bai eta, hala badagokio, gaitasun ekonomikoaren arabera dagokion prezio publiko hobariduna ere.

b) Prezio publikoaren ordainketa geroratu ahal den zerbitzuen kasuan, ebazpenean honako hauek adieraziko dira:

– Zerbitzu horri adinekoentzako etxebizitza komunitarioa denean aplikatu beharreko prezio publiko osoa.

– Zerbitzuari aplikatu beharreko prezio publiko osoa, bai eta, hala badagokio, gaitasun ekonomikoaren arabera dagokion prezio publiko hobariduna ere, adinekoentzako etxebizitza komunitarioan eguneko arreta emateko zerbitzuak direnean.

Ebazpen hori eman ondoren, pertsonak zorra aitortzea eskatzen badu, ebazpen berri bat emango da, geroratu ezin den prezioaren zein zati ordaindu behar den zehazteko, ordenantza fiskal honen 15. artikuluan aurreikusitako moduan.

3. Prezio publikoen zehaztapena eta aplikazioa, aurreko paragrafoetan adierazitako terminoetan, zerbitzua eskuratzeko prozeduraren esparruan egingo da, eta kasu bakoitzean aplikagarria den zerbitzuetara sartzeari buruz indarrean dagoen araudian horretarako aurreikusitako epeetan.

26. artikulua. Ofizioz berrikustea eta jakinarazteko betebeharra

1. Peñacerrada-Urizaharreko Udalak hornitutako zerbitzuengatik ordaindu beharreko prezio publikoak —osoak, hobaridunak, zati batean salbuetsiak edo geroratuak izan— ofizioz berrikusi ahal izango ditu organo kudeatzaileak, edo interesdunak edo bere legezko ordezkariak edo gordetzaileak edo egitezko zaintzaileak hala eskatuta, bai banakako berrikuspenaren esparruan, bai berrikuspen orokorraren esparruan. Berrikuspen horien ondorioz, prezio publikoa aldatu ahal izango da, baldin eta, organo eskudunaren ebazpen bidez, egiaztatzen bada aldaketa hori zehazteko oinarritzat hartu zen ahalmen ekonomikoan aldaketaren bat gertatu dela.

2. Aurrekoaren ondorioetarako, ordenantza fiskal honetan aipatzen diren prezio publikoko zerbitzuetako edozeinen erabiltzaileak —edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariak edo legezko zaintzaileak edo egitezko zaintzaileak—, gehienez ere hogeita hamar eguneko epean, gertatzen denetik, jakinarazi beharko du bere bizikidetzako egoeran, egoera zibilean, egoitzan, errenta edo ondare propioan edo besteren konputagarrian izandako edozein aldaketa, eta erabiltzaileari esleitutako prezio publikoetan eragina izan lezaketan inguruabar guztiak.

3. Peñacerrada-Urizaharreko Udalak ahalmen ekonomikoan aldaketaren bat gertatu dela jakiten badu eta aldaketa horren berri ez bada behar bezala eman aurreko paragrafoan aurreikusitako moduan, esleitutako prezio publikoa berrikusiko du, egoera berrira egokitzeko. Bi kasu gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio publiko berria aurrez esleitutakoa baino handiagoa denean, atzeraeraginez aplikatu ahal izango da egoera-aldaketa hori gertatu den datatik aurrera, eta 6.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan ordaintzera behartuta dagoen pertsonari aldi horretan pilotutako atzerapenak ordaintzeko betebeharra sortuko dio.

b) Esleitutako prezio publiko berria lehen esleitutakoa baino txikiagoa denean, ez da atzeraeraginezko izaeraz aplikatuko.

4. Udalari ekonomia-ahalmenean aldaketaren bat jakinarazi bazaio eta udal horri egotz dakizkiokeen arrazoiengatik prezio publikoa bi hilabeteko epean berrikusi ez bada, bi kasu gerta daitezke:

a) Esleitutako prezio berria lehen esleitutakoa baino handiagoa denean, ezin izango da atzeraeraginez aplikatu.

b) Esleitutako prezio berria lehen esleitutakoa baino txikiagoa denean, Udalak itzuli egin beharko ditu behar ez bezala kobratutako zenbatekoak.

5. Pertsona batek, Peñacerrada-Urizaharreko Udalak emandako zerbitzu batean sartzeagatik, bere familia-unitate propioa osatu behar duenean, jatorrizko familia-unitatea osatzen duten pertsonen gaitasun ekonomikoa berrikusiko da.

27. artikulua. Prezio publikoak eguneratzea

Ordenantza fiskal honetan ezarritako prezio publikoen eguneratzea ordenantza fiskalaren bidez egin beharko da. Ordenantza horrek, halaber, aplikagarri diren hobariak zehaztuko ditu eta gaitasun ekonomiko nahikoa mugatuko du.

28. artikulua. Prezio publiko sortu berriak

Lehendik dauden zerbitzuei eragiten dieten prezio publiko berri guztiak —baita zerbitzu osagarriei soilik eragiten dietenean ere— erabiltzaile guztiei aplikatuko zaizkie, nahiz eta prezio publiko hori sortu aurretik erabiltzaile izan. Kasu horietan, prezio publiko berriak ezarriko dira horiek ezartzen dituen Ordenantza Fiskala indarrean jartzen den egunetik aurrera.

III. KAPITULUA. PREZIO PUBLIKOENGATIKO ZORRAK

29. artikulua. Prezio publikoengatiko zorrak

1. Zerbitzu bakoitzak sorrarazitako prezio publiko galdagarriari dagokion ordainagiria —dela prezio osoa, dela hobaridun prezioa, dela, geroratu beharreko zerbitzuen kasuan, ordainketa geroratu ezin den prezio publikoaren zatia— banku bidez itzultzeagatik ordaintzen ez bada, zenbatekoa eskatuko da, eta ordaintzera behartuta dagoen pertsonari 30 egun naturaleko epea emango zaio zordundutako zenbatekoa ordaintzeko edo ordainketa zatikatzeko eskatzeko.

2. Aurreko puntuan aipatzen den epea amaitzen bada eskatutako zenbatekoa ordaindu gabe edo ordainketa zatikatzeko eskatu gabe, 1. paragrafoan aipatutako prezio publikoa premiamentuzko administrazio-prozeduraren bidez eskatuko da, zuzenbide publikoko kredituak biltzeari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera.

3. Eska daitekeen prezio publikoa behin eta berriz ordaintzen ez bada, zerbitzurako eskubi-dea eten ahal izango da, Peñacerrada-Urizaharreko Udalak hornitutako zerbitzuez baliatzeari buruz indarrean dagoen eta kasu bakoitzean aplikagarria den araudiaren arabera eta hartan aurreikusitako baldintzetan.

4. Udalak hornitutako gizarte-zerbitzuetara sartzeari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitakoaren arabera, baldin eta, irispide-prozedura baten esparruan, egiaztatzen bada ordaintzera behartuta dagoen pertsonak, ordenantza fiskal honen 6.1 artikuluan aurreikusitako baldintzetan, alde aurretik zorrak dituela udal horrekin gizarte-zerbitzuak edo -prestazioak emateagatik, honela jokatu da:

a) Peñacerrada-Urizaharreko Udalak gizarte-zerbitzuen arloko prestazioengatik, behar ez bezala ordaintzeagatik edo behar ez bezalako zenbatekoan ordaintzeagatik zorrak baditu, horretarako aurreikusitako araudian aurreikusitako itzulketa-prozedurari jarraituko zaio.

b) Gizarte-zerbitzuen prezio publikoak ez ordaintzeagatik zorrak baditu eta zor horien ordainketa ezin bada partzialki geroratu, eskatzaileari eskatuko dio dagokion jakinarazpena jaso eta 30 egun naturaleko epean zor dituen zenbatekoak ordain ditzala edo Peñacerrada-Urizaharreko Udalari zorra zatikatzeko eska diezaio, artikuluko honen 1. eta 2. idatz-zatietan aurreikusitako moduan.

c) Zorra gizarte-zerbitzuen arloko zerbitzu baten esparruan sortu bada eta zerbitzu horren ordainketa partzialki geroratu badaiteke, eskatzaileari honako hauek egiteko eskatuko dio:

- Dagoeneko sortutako zorra metatzea, ordainketaren geroratze partzialari lotutako prezio publikoaren zatiari dagokiona, destinoko zerbitzuari dagokion prezio publikoaren ordainketaren geroratze partzialaren esparruan sortzen den zorrari dagokiona.

- Hala badagokio, sortutako zorra metatzea, ordainketa zati batean geroratu ezin den prezio publikoaren zatiari dagokiona, aurreko gidoian aipatutako geroratutako zorrari dagokiona.

c) Idatz-zati honetan aurreikusitako kasuetan, zor-metaketa hori zor-aitorpenaren dokumentuan jaso beharko da, xede-zerbitzuarekin lotuta formalizatuko dena, ordenantza fiskal honen 16. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Halaber, 14. artikuluan bermeak eskatzeari buruz egindako aurreikuspenak ere aplikatuko dira.

Pertsona ez bada zorra ordaintzeko dagokion bidera jotzen, kasuaren arabera, 4. paragrafo honetan aurreikusitako bideetatik, zerbitzu berria sartzeko eskaera bertan behera utzi dela ulertuko da, eta besterik gabe artxibatu egingo da, Peñacerrada-Urizaharreko Udaleko organo eskudunak horretarako ebazpena eman ondoren, balorazio ekonomikoa egiteko organo eskudunaren proposamenez. Dena den, pertsona horrek, ondoren, beste prozedura bat has dezake zorra ordaintzeko.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA. Ezkontzaren antzeko lotura

1. Ordenantza fiskal honen ondorioetarako, izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legean zehaztutako izatezko bikoteak joko dira ezkontzaren antzeko loturaz lotutakotzat (lege hori indarrean dago Autonomia Erkidegoan).

2. Lotura hori badagoela egiaztatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Izatezko Bikoteen Erregistroak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko da, edo, hala badagokio, dagokion udal-erregistroak emandako ziurtagiria, lege horren 3. artikuluan araututakoaren arabera.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA. Ohiz kanpoko egoerak

1. Zerbitzuen erabiltzaileen inguruabar sozial eta/edo ekonomiko bereziak kontuan hartuta, Peñacerrada-Urizaharreko Udaleko organo eskudunak, zerbitzuaren izaera dela-eta justifikatutako txosten teknikoa egin ondoren, hobari partzial edo osoak adierazi ahal izango ditu 8.1 artikuluan hobaririk gabekotzat jotzen diren zerbitzuetan, edo, hala badagokio, hobari hobaridunen gehikuntza zehaztu ahal izango du, salbuetsitako zenbatekoetan edo ordenantza fiskal honetan aurreikusitako erabilera askeko zenbatekoetan.

2. Zerbitzuaren erabileran etenak gertatzen direnean 9. artikuluan jaso ez diren arrazoiengatik, udaleko organo eskudunak, alde zurretik txosten tekniko arrazoitua eginda, prezio publikoaren salbuespen partzialak onartu ahal izango ditu plazaren erreserbaren kontzeptuan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza fiskal hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geratzen dira araudi honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Azken xedapenetatik lehena. Ordezko araubidea.

1. Ordenantza fiskal honek berariaz aurreikusten ez duen guztirako, Peñacerrada-Urizaharreko Udalak hornitutako zerbitzuetara sartzeari buruzko erregelamenduan eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako xedapenak aplikatuko dira osagarri gisa, bai eta indarrean dauden legezko xedapenak eta haiekin bat datozenak ere.

2. Araudi hau, bere osotasunean, Arabako Lurralde Historikoko Zergabilketari buruzko Araudi Orokorra onartzen duen maiatzaren 10eko 48/1994 Foru Dekretuan ezarritakoaren menpe dago.

3. Era berean, Ordenantza Fiskal honetan ordainketa geroratzeari buruz berariaz aurreikusi ez den guztian, osagarri gisa, Arabako Foru Aldundiak zergazkoak ez diren zorren ordainketa geroratzea eta zatikatzea arautzeko ematen duen edo emana duen araudia aplikatuko da.

4. Oro har, Estatuko, Autonomia Erkidegoko edo Foru Aldundietako berariazko arauak aipatzen direnean, gai horiei buruz une bakoitzean indarrean dauden arauak buruzkoak direla ulertu behar da.

Azken xedapenetatik bigarrena. Indarrean jartzea.

1. 1. Ordenantza Fiskal hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

2. Ordenantza fiskal hau Peñacerrada-Urizaharreko Udalak emandako zerbitzuei aplikatuko zaie, indarrean sartzen den egunean 1. artikuluan deskribatu direnei, edozein dela ere zerbitzu horiek ematen hasteko data.

Azken xedapenetatik laugarrena. Argitaratzea.

Araudi erregulatzailer berria ALHAOn argitaratzeko agintzen da.

I . ERANSKINA

PREZIO PUBLIKOEN ZENBATEKOA

Ordenantza fiskal honen 1. artikuluan definitutako zerbitzuak ordaintzera behartuta dauden pertsonak ordaindu beharreko prezio publikoen zenbatekoak, beste berri batzuk onartzen ez diren bitartean, eta beste zerbitzu batzuk arautzen dituzten beste araudi batzuk egotea baztertu gabe.

1. tarifa. Etxebizitza komunitarioan ostatu emateko zerbitzua	647,86 euro/hileko
2. tarifa. Eguneko arreta	
2.1 tarifa. Eguneko arreta etxebizitza komunitarioan	218,91 euro/hileko
2.2 tarifa. Asteburuko eguneko arreta etxebizitza komunitarioan	10,64 euro/eguneko
3. tarifa. Eguneko arretarako landa-zentroak	
3.1 tarifa. Arreta pertsonaleko zerbitzua	130,18 euro/hileko
Zerbitzu osagarriak:	
3.2 tarifa. Janari zerbitzua	88,72 euro/hileko
3.3 tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua	8,20 euro/ekintzako
3.4 tarifa. Bainu geriatrikoko zerbitzua	5,09 euro/ekintzako
3.1 eta 3.2 tarifetan aurreikusitako zerbitzuak asteko egun guztietan erabiltzen ez direnean, aplikatu beharreko prezioa proportzionalki kalkulatu da Irizpide bera erabiliko da zentro horietako atsedeen-zerbitzuetarako	
4. tarifa. Atsedeen hartzeko zerbitzua landa eremuan	21,29 euro/eguneko
5. tarifa. Eguneko arretako atsedeen-zerbitzua landa-eremuko ostatuan	10,64 euro/eguneko
6. tarifa. Eguneko arretarako landa zentroan atsedeen hartzeko zerbitzua (arreta pertsonalizatua)	6,32 euro/eguneko
7. tarifa. Erabiltzaile ez-iraunkorren zerbitzu osagarriak.	
7.1 tarifa. Otordu-zerbitzua landa-eremuko ostatuan adinekoentzat	5,98 euro/ekintzako
7.2 tarifa. Bainu geriatrikoko zerbitzua, landa-eremuko ostatu-zerbitzuan	5,09 euro/ekintzako
7.3. tarifa. Arropa garbitzeko zerbitzua, adinekoentzako landa-eremuko ostatuan	8,20 euro/ekintzako
8. tarifa. Etxebizitza komunitarioaren erabiltzaile iraunkorren senideentzako zerbitzu osagarriak: Janari zerbitzua	5,98 euro/ekintzako

*Informazio giza, adierazten da etxeko laguntza zerbitzuaren prezio publikoa zerbitzua ematen duen erakundeak ezarriko duela bere araudi erregulatzaileran. Ordenantza Fiskal hau onartzen den egunean Arabako Foru Aldundia da zerbitzua ematen duen erakundea eta ezarritako prezio publikoa 6,66 euro/ordukoa da.

II. ERANSKINA

BEHAR ADINAKO AHALMEN EKONOMIKOA MUGATZEA

I. Eranskinean ezarritako prezio publikoak indarrean dauden bitartean, ahalmen ekonomiko nahikoa dagoela joko da, eranskin honetan aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan.

1. 8.1 artikuluan hobariak zehazteari buruz aurreikusitakoaren ondorioetarako, prezio publiko osorik ordaintzeko behar adinako ahalmen ekonomikoa dagoela joko da, baldin eta prezio hori, III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoarekin bat kalkulatuta, a) eta b) letretan adierazitako mugen parekoa edo handiagoa bada:

a) Hileko banakako edo per capita ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen den kasuetan aplikatu beharreko mugak:

Adinekoentzako atsedeen zerbitzua etxebizitza komunitarioan: 877,18 euro/ hileko.

b) Familiaren hileko ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen den kasuetan aplikatu beharreko mugak:

Eguneko arreta zerbitzua adinekoentzako etxebizitza komunitarioan: 1.599,00 euro/hileko.

Halaber, aurreko a) eta b) idatz-zatietan aurreikusitako kasuetan, ahalmen ekonomiko nahikoa dagoela joko da, baldin eta pertsona horrek, III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatutako ahalmen ekonomikoa aurreko tauletan aurreikusitako mugak baino txikiagoa izan arren, ondare konputagarri bat badu:

- 90.000,00 euro edo gehiago, 35 urtetik beherako pertsonentzat.
- 70.000,00 euro edo gehiago, 35 eta 65 urte bitarteko pertsonentzat.
- 50.000,00 euro edo gehiago, 65 urtetik gorakoentzat.

2. Adinekoentzako etxebizitza komunitarioaren zerbitzuaren ordainketaren zati bat gerortzeari buruz 14.1 artikuluan aurreikusitakoaren ondorioetarako, ahalmen ekonomiko nahikoa dagoela joko da, baldin eta atzerapen hori, III. tituluko I. kapituluan aurreikusitakoaren arabera kalkulatuta, honako muga hauen parekoa edo handiagoa bada:

Adinekoentzako etxebizitza komunitarioaren zerbitzua: 877,18 euro/hileko.

3. Era berean, ahalmen ekonomiko nahikoa dagoela joko da, baldin eta pertsonak erraz egiteko ondare hau baino handiagoa badu:

a) 3.000,00 euro, adinekoentzako etxebizitza komunitarioko zerbitzuen kasuan.

b) 15.000,00 euro, adinekoentzako etxebizitza komunitarioko eguneko arreta-zerbitzuaren kasuan.

III. ERANSKINA

I. ERANSKINEAN EZARRITAKO PREZIO PUBLIKOEN
INDARRALDIAN APLIKATZEKOAK DIREN HOBARIAK

Etxez etxeko laguntza zerbitzua.

Zerbitzu honengatik ordaindu beharreko banakako prezioa zehazteko, familiaren hileko ekonomia-ahalmenaren arabera, honako baremo hau aplikatuta ateratzen diren orduko zenbatekoak aplikatuko dira:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROTAN)	EURO ARTE	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
500,00	0	0	500	0,22
600,00	500,00	1,10	100,00	0,33
700,00	600,00	1,43	100,00	0,43
800,00	700,00	1,86	100,00	0,54
900,00	800,00	2,40	100,00	0,65
1.000,00	900,00	3,05	100,00	0,82
1.100,00	1.000,00	3,87	100,00	0,98
1.200,00	1.100,00	4,85	100,00	0,60
1.300,00	1.200,00	5,45	100,00	0,43
1.400,00	1.300,00	5,88	100,00	0,33
1.500,00	1.400,00	6,21	100,00	0,22
1.599,00	1.500,00	6,43	99,00	0,22
1.599,00 eurotik gora		Gehieneko tarifa	6,66 euro/orduko	

Ordaindu beharreko zenbatekoa zehazteko, beharrezkoa izango da hileko ordu aitortuen kopurua zehaztea. Horretarako, asteko orduen batura 4,3z biderkatuko da.

Eguneko arretarako landa-zentroetako zerbitzuak.

Arreta pertsonalerako zerbitzuak ordaindu beharreko banakako prezioa zehazteko, familiaren hileko ahalmen ekonomikoaren arabera, baremo hau aplikatuta ateratzen diren orduko zenbatekoak aplikatuko dira:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROTAN)	EURO ARTE	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
500,00	0,00	0,00	500,00	3,27
600,00	500,00	16,35	100,00	5,69
700,00	600,00	22,04	100,00	7,96
800,00	700,00	30,00	100,00	11,37
900,00	800,00	41,37	100,00	12,46
1.000,00	900,00	53,83	100,00	12,50
1.100,00	1.000,00	66,33	100,00	12,50
1.200,00	1.100,00	78,83	100,00	12,56
1.300,00	1.200,00	91,39	100,00	12,56
1.400,00	1.300,00	103,95	100,00	12,56
1.500,00	1.400,00	116,51	100,00	6,87
1.599,00	1.500,00	123,38	99,00	6,87
1.599,00 eurotik gora		Gehieneko tarifa	130,18 euro/hileko	

Eguneko arreta zerbitzua adinekoentzako etxebizitza komunitarioan.

Zerbitzuaren erabiltzaileek ordaindu beharreko banakako prezioa zehazteko, familiaren hileko ekonomia-ahalmenaren arabera, honako baremo hau aplikatuta ateratzen diren hileko zenbatekoak aplikatuko dira:

FAMILIAREN AHALMEN EKONOMIKOA (EUROTAN)	EURO ARTE	ZENBATEKOA	GAINERAKOA, GEHIENEZ	EHUNEKOA
500,00	0,00	0,00	500,00	10,00
600,00	500,00	50,00	100,00	14,37
700,00	600,00	64,37	100,00	15,22
800,00	700,00	79,59	100,00	16,53
900,00	800,00	96,12	100,00	18,27
1.000,00	900,00	114,39	100,00	19,57
1.100,00	1.000,00	133,96	100,00	20,87
1.200,00	1.100,00	154,84	100,00	22,18
1.300,00	1.200,00	177,02	100,00	26,09
1.400,00	1.300,00	203,11	100,00	10,44
1.500,00	1.400,00	213,55	100,00	2,69
1.599,00	1.500,00	216,24	99,00	2,69
1.599,00 eurotik gora		Gehieneko tarifa	218,91 €	

Bi ezkontideak edo ezkontzaren antzeko lotura duten pertsonak —ordenantza fiskal honen lehenengo xedapen gehigarrian zehaztutako terminoetan— adinekoentzako etxebizitza komunitarioetako eguneko arreta-zerbitzuaren erabiltzaileak direnean, aurreko taulan adierazitako ehunekoak aplikatuko zaizkio familia-unitatearen hileko ahalmen ekonomikoaren ehuneko 65ari. Ezkontidea edo ezkontzaren antzeko lotura duen pertsona —Ordenantza Fiskal honen lehen xedapen gehigarrian zehaztutako terminoetan— adinekoentzako egoitza edo etxebizitza komunitarioan badago, azken ehuneko hori ehuneko 50ekoa izango da.

IV. ERANSKINA

EREDUAK

- 005 Gizarte-zerbitzuak eskuratzeko eskaera.
- 008 Ordezkararen edo erreferentzia-pertsonaren datuak.
- 009 Egitezko zaintzaren zinpeko aitortpena.
- 010 Baimen-inprimakia.
- 011 Plaza onartzeko inprimakia.
- 012 Baimena GOFeri.
- 013 Banku-kontuaren identifikazio-fitxa.
- 014 Hutsik dauden lanpostuak esleitzeko zerrendako lehentasuna zehazteko puntuazio-irizpideak.
- 015 Plazak kudeatzeko programarekin lotutako eskaera.
- 016 Espedientea lekuz aldatzeko eskaera.
- 017 Babes gehigarria eskuratzeko eskaera.

024 Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoaren eskaerari buruzko datu osagarri espezifikoak (modalitate arrunta).

025 Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoari buruzko datu osagarri espezifikoak (atseden hartzeko modalitatea).

026 Titularra ez den pertsona fisiko edo juridikoari ZLPEa (Zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa) ordaintzeko baimena ematea.

027 Zerbitzua edo zentroa aldatzeko baimen-eskaera.

035 Zerbitzuaren eskatzaileak aurkeztutako prezio publikoaren ordainketa geroratu gabe ordaintzeko konpromisoa.

036 Legezko ordezkariaren edo egitezko zaintzailearen bitartez aurkeztutako prezio publikoaren ordainketa geroratu gabe ordaintzeko konpromisoa.

037 Hirugarren dohaintza-hartzaile batek bermatutako prezio publikoaren ordainketa geroratu gabe ordaintzeko konpromisoa.

038 Ordaintzeko obligaziorik ez duen hirugarren batek borondatez bermatutako prezio publikoaren ordainketa geroratu gabe ordaintzeko konpromisoa.

039 Prezio publikoaren ordainketaren zati bat geroratzeko eskaera, zerbitzuaren eskatzaileak aurkeztua.

040 Legezko ordezkariaren edo egitezko zaintzailearen bidez aurkeztutako prezioaren ordainketa partzialki geroratzeko eskaera.

041 Eskatzaileak aurkeztutako prezio publikoaren ordainketa geroratuari dagozkion zenbatekoek sortutako zorra aitortzeko dokumentua.

042 Prezio publikoaren ordainketa geroratuari dagozkion zenbatekoek sortutako zorra aitortzeko dokumentua, legezko ordezkariak edo izatezko zaintzaileak aurkeztua.

043 Prezio publikoaren ordainketa geroratuari dagozkion zenbatekoek sortutako zorra aitortzeko dokumentua, ordaintzeko betebeharrak subsidiarioa duen dohaintza-hartzaileak bere gain hartua.

Peñacerrada-Urizaharrear, 2025eko azaroaren 28an

Alkatea

ALFREDO VICUÑA IBÁÑEZ